

Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala – 15. saioa

Consejo Sectorial de Medio Ambiente – Sesión 15

Deialdia egin duena Convoca	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora	2019ko urriaren 22/ 22 de octubre de 2019 Urgull aretoa 18:30 / A las 18:30 horas
Amaiera ordua Hora de finalización	20:30 / A las 20:30 horas

GAI ZERREDA: ORDEN DEL DÍA:

1. Kontseilua osatzen duten pertsona fisikoak ezagutaraztea (10 minutu)	1. Presentación de las personas físicas integrantes del Consejo (10 minutos)
2. Aurreko akta onartzea (5 minutu)	2. Aprobación de acta anterior (5 minutos)
3. Lehendakariordea eta batzorde iraunkorreko kideen izendatzea (10 minutu)	3. Nombramiento de la vicepresidencia y las/los miembros de la Comisión permanente (10 minutos)
4. Bokak izaera galdu duten elkarteak (10 minutu)	4. Pérdida de condición de vocal (10 minutos)
5. Programa eta egutegia (15 minutu)	5. Programa y calendario de actividades (15 minutos)
6. Larrialdi klimatikoa (20 minutu)	6. Emergencia climática (20 minutos)
7. Norberak leharkeena (10 minutu)	7. Ruegos y preguntas (10 minutos)

BILERAN PARTE HARTU DUTE: HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA DEL CONSEJO	Ekologia eta Osasun Publikoko zinegotzi ordezkaria
TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	EAJ/PNV PSE-EE EH BILDU Elkarrekin Donostia PP

m

KONTSEILUKO KIDEAK VOCALÉS DEL CONSEJO	1. HARITZALDE 2. EGUZKI 3. AZTI 4. ARANZADI 5. KALAPIE 6. COAVN 7. SEO DONOSTIA 8. FRIDAYS FOR FUTURE 9. HERRITARRA 1 10. HERRITARRA 3,
ETORRI EZ DIRELA KO DESENKUSATU DIRA EXCUSARON SU ASISTENCIA	EMAUS FUNDAZIOA ITSAS ENARA
UDAL TEKNIKARIAK PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL	A Ingurumen eta Osasun publikoko zuzendaria Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren burua Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad Partaidetza
PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	Emakumezkoak / Mujeres = 6 Gizonezkoak / Hombres = 13
KONTSEILUKO IDAZKARITZA: SECRETARÍA DEL CONSEJO:	Ingurumeneko goi mailako lege teknikaria / Técnico Superior Jurídico de Medio Ambiente ingurumena@donostia.eus

Desarrollo de la sesión:

1. Kontseiluan sartu diren pertsona fisiko berriak aurkeztea

Idazkariak adierazi du, zozketa egin ondoren, pertsona hauek izango direla, banako gisa, kontseiluko kide. Adriana Uribesalgo, Jose Antonio Abel eta Rafael Irastorza. Lehenengo biak aretoan dira eta kontseiluan parte hartzeko izena zergatik eman zuten azaldu dute.

Bestalde, elkarteei dagokienez, ez dago ezer berririk; aretoan daudenak azken lau urteetan egon direnak dira, P. R. izan ezik, orain Frydays for Future elkartearen ordezkari baita.

1. Presentación de las nuevas personas físicas integrantes del Consejo

El secretario da cuenta de las personas que han sido elegidas como nuevos vocales, a título individual, tras el sorteo realizado. Son Adriana Uribesalgo, Jose Antonio Abel y Rafael Irastorza. Los dos primeros, presentes en la sala, indican qué les motivó para apuntarse al Consejo.

Asimismo, no hay novedades respecto a las Asociaciones; los presentes en la sala son los de los últimos cuatro años excepto P. R. que viene en representación de Frydays for future.

2. Aurreko akta onestea

HARITZALDE eta EGUZKIko ordezkariak haserrea adierazi dute Lourdes Txikiko hegalean eta Belarratzan gertatutakoagatik, eta kontseiluko lehendakaria egin dute horren erantzule. Hori dela eta, adierazi dute ez direla itzuliko kontu horiek konpondu arte. Hori esanda, 18:50ean aretotik alde egin dute.

2. Aprobación del acta anterior

Los representantes de HARITZALDE y EGUZKI muestran su enfado por lo acontecido con en la ladera de Lourdes Txiki y en Belartza y señalan como responsable al actual presidente del Consejo, por lo que anuncian que no volverán hasta que no se solucionen dichos asuntos. Dicho esto y siendo las 18:50 horas abandonan la sala.

Aurreko akta onetsi dute, baina SEOko ordezkariak adierazi du Artzain Onaren katedrala eraberritzeko obrek belatz handiari sortutako arazoari buruzko aipamena sartzea falta dela. Azpimarratu du hegazti populazioak kontuan hartu behar direla hiri ingurunean eraberritze lanak egiten direnean. Erantsiko dute puntu hori.

Se aprueba el acta anterior, si bien el representante de SEO indica que en ella falta incluir el problema del halcón peregrino por las obras de reforma de la I Catedral del Buen Pastor, y la necesidad de tener en cuenta las poblaciones de aves a la hora de realizar reformas en entorno urbano. Se añadirá este punto.

3. Batzorde Iraunkorreko lehendakariordea eta kideak izendatzea

Idazkariak adierazi du EMAUS aurkeztu dela berriro lehendakariorde izateko, eta kideei galdetu die ea inork izan nahi duen Batzorde Iraunkorreko kide (EMAUS elkarteaz eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaz gain).

Adriana Uribesalgok eta KALAPIEko ordezkariak eman dute izena.

3. Nombramiento de la vicepresidencia y las/los miembros de la Comisión permanente

El secretario indica que para la Vicepresidencia se ha vuelto a presentar EMAUS y pregunta a los vocales si alguien quiere formar parte de la Comisión Permanente (a parte de EMAUS y COAVN)

Adriana Uribesalgo y el representante de KALAPIE se apuntan.

4. Kide izateari uztea

Idazkariak azaldu du zer elkartek utzi dioten kontseiluko kide izateari bilkuretara ez joateagatik.

4. Pérdida de condición de vocal

El Secretario indica el listado de las asociaciones que han perdido la condición de vocales del Consejo por no acudir a sus sesiones.

5. Jardueren programa eta egutegia.

Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuaren buruak azaldu du zer gai proposatu dituzten kideek, eta zerrenda bat banatu du, lehenetasun ordena bozkatzeko.

5. Programa y calendario de actividades.

La Jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad expone los diferentes temas propuestos por los vocales y reparte una lista para que se vote por orden de preferencia.

Aranzadiko ordezkariak adierazi du gai bat proposatu zutela Santa Klara uharteko obraren inguruan, hondakinak nola aterako diren aztertzeko, baina ez duela zentzurik gai hori hurrengo aholku kontseiluan jorratzeak, ordurako zaharkitua egongo baita. Zer gertatuko da hor sortuko diren obra hondakinekin?

El representante de Aranzadi indica que el tema que propusieron sobre el desescombros relacionado con la obra de la isla Santa Clara no tiene sentido tratarla en el próximo Consejo Sectorial porque ya quedará obsoleto. ¿Qué va a pasar con los escombros que se generen?

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko ordezkariak beharrezkotzat jo du lan talde bat eratzea udal ordenantzak egiten parte hartzeko.

La representante del COAVN ve necesario que exista un grupo de trabajo para participar en la elaboración de ordenanzas municipales.

Adriana Uribesalgok uste du Kontseiluaren berri eman beharko litzatekeela, Twitter bidez esaterako, jende gazteago gehiago erakartzeko. Halaber, Kontseiluaren helburuei buruz galdetu du.

Adriana Uribesalgo opina que debiera tener más difusión la existencia del Consejo, a través de Twitter por ejemplo, de esta manera se podría atraer a gente más joven. Asimismo pregunta por los objetivos del Consejo.

Jose Antonio Abelek lehentasuna eman die mugikortasun gaiei, eta auto gehiegi ibiltzen dela salatu. Adierazi du etxebizitzetan eguzki plakak jar daitezen sustatzea izan daitekeela klima aldaketa geldiarazteko irtenbidearen parte bat.

José Antonio Abel prioriza los temas de movilidad y denuncia el tránsito excesivo de coches y explica que el impulso de placas solares en las viviendas puede ser parte de la solución para frenar el cambio climático.

SEOko ordezkariak berriro ere kezka agertu du hegaztien inguruan, ez baitira kontuan hartzen eraikitzeako orduan. Hainbat adibide jarri ditu: Morlanseko beirak, Txomifieneko Distrit Heating eta Gizarte Segurantzaren Erriberetako eraikina. Eraikin horietan, islatu egiten da inguruko landaredia, eta hegazti askok talka egin dute beiren kontra.

El representante de SEO reitera su preocupación por las aves ya que no se tienen en cuenta a la hora de edificar. Pone ejemplos: Cristaleras de Morlans, en Txomin el Distrit Heating, el edificio de la Seguridad Social en Riberas, edificios que por reflejar la vegetación colindante hacen que muchas aves colisionen.

Bilduko ordezkariak Belarratzako eta Lourdes Txikiko gaiak proposatu ditu.

La representante de Bildu propone el tema de Belartza y Lourdes Txiki.

6. Klima larrialdia.

Osasun eta Ingurumen zuzendariak puntu hori aurkeztu du, eta horren ondoren hainbat pertsonak hartu dute parte.

6. Emergencia climática.

El director de Salud y Medio Ambiente presenta este punto y tras el mismo existen varias intervenciones.

Zuzendariak krisi ekonomikotik irtetearekin lotu du kutsadura areagotu izana.

El Director achaca el incremento de la contaminación a la salida de la crisis económica.

Kontseiluko lehendakariak Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko ordezkariari azaldu dio irisgarritasunerako dirulaguntzak lehenetsi dituztela energia birgaikuntzarako dirulaguntzen aurretik, eta komenigarria litzatekeela Osasun eta Ingurumen Zuzendaritzak aurrekontu partida bat izatea.

El presidente del Consejo explica a la representante de COAVN que se han priorizado las subvenciones para accesibilidad frente a la rehabilitación energética y que sería conveniente que el Área de Salud y Medio Ambiente contase con su propia partida presupuestaria.

KALAPIEko ordezkariari beharrezkoa iruditzen zaio neurri zorrotzak hartzea.

El representante de KALAPIE ve necesario la adopción de medidas drásticas.

ELKARREKIN DONOSTIA taldeko ordezkariak esan du ekintza gehiago eta paper gutxiago behar direla. Anoeta birmoldatzen gastatutako dirua kritikatu du. Alemaniako hiri baten adibidea jarri du:

El representante de ELKARREKIN DONOSTIA exige más actuaciones y menos papel. Critica el dinero gastado en la remodelación de Anoeta. Pone un ejemplo de una ciudad alemana donde el

Udalak maileguak ematen dizkie herritarrei, energia birgaikuntzarekin eta energia berriztagarriekin lotutako jarduerak egiteko, eta herritarrek, ondoren, itzuli egiten diete administrazioei etxean jarduketa horiek egitearen ondorioz aurreztutako dirua.

Adrianak gaikako bilketarako edukiontzi gehiago eskatu ditu portuko eremurako, asteburuetan, jende gazte asko izaten denez, gainezka egiten baitute.

Lehendakariak azaldu du larrialdi deklarazioa abenduko lehen asterako aurreikusita dagoela.

Bestalde, Seobirdlife Ulian ehiza izateari Udalak zer irizten dion galdetu duela eta, lehendakariak adierazi du ehiza ez litzatekeela baimendu behar inguru horretan, jende asko ibiltzen baita paseoan, baina eskumena Aldundiarena dela.

7. Galderak eta eskaerak

Kontseiluko lehendakariak, HARITZALDE eta EGUZKI elkarteetako ordezkarien kritikak direla eta, adierazi du lehen-lehenik Ekintza ikastolako haurren segurtasuna hartu dutela kontuan.

Eman zen exekuzio-aginduak ezin du segurtasunaren esparrutik harago joan, hau da, zigorrak eta mendi-hegala jatorrizko egoerara berrezartzearen gaia kanpoan uzten ditu. Horrek ez du esan nahi azken hori alde batera utziko denik. Landareztatze-proiektu berri bat idatziko da. Azkenik, saileko teknikariek gomendatutako agindua sinatu zuela defendatzen du.

Elkarrekin Donostiako ordezkariak zehaztu du inork ez duela zalantzan jartzen segurtasunaren lehentasuna, eta egonkortu beharreko proiektuak landareztatze-proiektu bat zekarrela, eta hori hondamendia zela. Pozik hartu du Lourdes Txikin birlandatzeko proiektu berri bat egiteko konpromisoa dagoela.

Belartzari dagokionez, esan du Udaleko teknikariek hobeto iruditu zitzaizela aldi baterako betegarri bat jartzea kamioi pilo bat mugiaraztea baino, horrek kutsatu egiten baitu.

20:30ean amaitu da bilera.

ayuntamiento hace prestamos a la ciudadanía para actuaciones en rehabilitación energética y en renovables y los vecinos/as devuelven a las administraciones el dinero ahorrado tras estas actuaciones en sus casas.

Adriana pide más contenedores de recogida selectiva para la zona del puerto ya que los fines de semana, por la afluencia de gente joven, se ven desbordados.

El presidente explica que la declaración de emergencia esta prevista para la primera semana de Diciembre.

Asimismo, responde a la pregunta de Seobirdlife sobre la postura del Ayuntamiento en el tema de la caza en Uliia indicando que no debiera estar permitido cazar por el uso intensivo de paseantes que hay en este entorno pero que la competencia es de la Diputación.

7. Ruegos y preguntas

El Presidente del Consejo con relación a las críticas de los representantes de HARITZALDE Y EGUZKI indica respecto a la ikastola Ekintza que la seguridad de los niños y niñas de ha sido lo primero en este asunto.

La orden de ejecución que se dio no puede ir más allá del ámbito de la seguridad, es decir, deja fuera las sanciones y el tema de la reposición de la ladera a su estado originario. Ello no quiere decir que se vaya a dejar de lado esto último. Se procederá a redactar un nuevo proyecto de revegetación. Por último, defiende que firmó la orden recomendado por los técnicos/as del departamento.

El representante de Elkarrekin Donostia precisa que nadie pone en duda la prioridad de la seguridad, y que el malestar proviene del hecho de que el proyecto de estabilización incluía un proyecto de revegetación que era un desastre. Toma nota positivamente de que existe un compromiso de hacer un nuevo proyecto de revegetación en Lourdes Txiki.

Respecto a Belartza comenta que los técnicos/as del Ayuntamiento vieron mejor un relleno temporal que el movilizar un montón de camiones con su consiguiente contaminación.

Finaliza la sesión a las 20:30 horas.